



ikastolak



ZANGOZAKO IKASTOLA
ZANGOZA



Zangozako Ikastola eskola-jazarpenaren kontra

ZANGOZAKO IKASTOLAK FINLANDIAN SORTUTAKO KIVA PROGRAMA EZARRIKO DU 'BULLYING' KASUAK SAIHESTEKO ETA SALATZEKO

Testua DBH 4. mailako ikasleak Argazkia Zangozako Ikastola


“KiVa ikastola gara!”, Hau da abenduko azken asteetan entzuten hasi ginen esaldia, eta orduz geroztik, *bullying*, zoritzarrez hain fama-tua den hitzari eta jazarpenari buruz hasi gara hitz egiten.

ZER DA KIVA? KiVa, *bullying* edo eskola-jazarpenaren aurkako programa da. KiVa programa Finlandiako Hezkuntza Ministerioak finantzatu eta Finlandiako Turku Unibertsitateak sortu eta garatutako eredu bat da. 2006 urtean sortu zen eta 2009 jarri zen martxan, eskola-jazarpena murrizteko xedearekin.

KiVak eskolan jazarpena murrizten duela eta ongizatea hobetzen duela frogatuta dago. Finlandian, Lehen Hezkuntzako ia eskola guztiak KiVa programa ezartzen ari dira, eta aurreko urtean, Finlandiako bi aditu, Johanna Alanen programaren nazioarteko koordinatzailea eta Ulrika Willför-Nyman programa hori duela urte batzuetatik hona indarrean duen eskola bateko zuzendaria, EHI-ko ikastolei KiVa Programa azaltzeko antolatutako jardunaldi batzuen ondoren, hauek proiektu gisa aplikatzea erabaki zuten erakunde mailan.

ZEINTZUK DIRA PROGRAMAREN HELBURUAK? KiVaren helburu nagusia eskola jazarpenaren prebentzioa da, eta jazarpen egoeren aurrean, ondorio negatiboa apaltzea. Eskola mailan, jazarpenaren inguruko informazioa emango digute eta honi aurre egiteko erak azalduko dizkigute. Jendeak horren inguruko konprometua hartzea lortzea izango da helburu finala, jazarpena onartu ordez edo erasotzaile animatu ordez, honi aurre egiteko eta biktimari laguntzeko.

Orain arte eman diguten ideia nagusietako bat hau da: “Jazarpena guztien ardura da eta guztien artean elkar-laguntzea behar dugu”.



KiVa programaren bitartez, gure ikasleak jazarpenaren kontra kontzientziatu nahi ditugu.

KIVA PROGRAMAREN EZARPENA GURE IKASTOLAN Programak 10 ikasgai ditu eta, horrez gain, ikasturtean zehar egiten diren lanak ditu. Lehen Hezkuntzako ikasleek eramanango dute aurrera hilean bitan egingo dituzten saioetan. Ikasgai horiek aurrera eramanez, eta eskola-jazarpenari eta errespetuari buruzko eztabaidak egingen dituzte. Taldeko lanari buruz hitz egiten da eta hainbat jardura burutzen dira taldeka. Ikasgaiak eta gaiak bideojoku batekin osatzen dira, jazarpenaren kontrako neurriak hartzeko.

ETA PROGRAMARI HASIERA EMATEKO. “KIVA EGUNA” Urtarrilaren 19an KiVa Eguna ospatzen ariko gara gure ikastolan. Horretarako, KiVa taldeak bideo bat prestatzen ari da eta

lan honetan laguntza eskatu digute. Bideoa osatzeko Lehen Hezkuntza eta DBH osoan grabatu ditugu, jazarpen egoera desberdinak antzetzuz.

Hauk mannequin challenge teknika bitartez grabatu ditugu, hau da, pertsonak geldirik egoten dira, estatua batzuk izango balira bezala, egoera bat adieraziz, kamera beraiean ondoan pasatzen den bitartean. *Bullying*-a adierazten duten hainbat egoera grabatu dira, hala nola, zeharkakoa: *ciberbullyinga* (sare sozialetan gertatutako *bullyinga*), soziala (elkar ezagutzen duten jendearekin) eta bazterketa; zuzenekoak: fisikoa (kolpeak, ostikadak...), ahozkoa (irainak, isekak...) eta psikologikoak (moralak kaltetzen dutena). Honako bideo hauek, ikastolako leku ezberdinetan grabatuak izan dira eta egun honetan grabazio guz-

tiak batera jarriko dituzte musika-rekin, erakargarriagoa eta interesgarriagoa izateko.

KiVa eguna ospatzeko hainbat jardura egingo ditugu. Hasteko, jostaldia amaitzean, DBH4. mailako ikasleek txokolatada bat prestatuko diegu ikastolako ikasle guztientzat. Gero, aurreko egunetan *bullying*aren egoerakin egindako bideoak ikusiko ditugu, klase bakoitzak gainerako ikasle guztienak. Bideo hauek guztiak ikus- tean, ikastolako ikasleak taldeetan elkartuko gara eskola-jazarpenari buruz eztabaidatu eta hitz egiteko. Azkenik, egunari amaiera emateko, egoera guztiak grabazio orokor batean egiten saiatuko gara. Horretarako, klase bakoitzak bere egoera egiten egongo da, eta irakasle batek egoera guztiak bideo bakar batean grabatuko ditu. ●



NAGORE ORIA
KIVA ARDURADUNA

“Ikastetxe guztietan gertatzen dira jazarpenak”

Nagore Oria KiVa programaren arduradunak ekimenaren inguruko azalpenak eman dizkigu.

ZANGOZA – Nagore Oria Telletxea irakaslea KiVa programako arduradun nagusia da eta galdera batzuk egin dizkiogu proiektuaren inguruan. Bere iritziz, ezinbestekoa da horrelako proiektu bat edukitzea eskola-jazarpena saihestu ahal izateko.

Zergatik sartu da Zangozako ikastola programa honetan?

–Programa honetan sartzearen arrazoia oso argia da, jazarpenak daudelako eta horiek konpondu behar direlako.

Bullying kasurik ba al dugu gure ikastolan?

–Baten bat badago, beti egoten dira, ikastetxe guztietan gertatzen den zerbait da. Orain garrantzitsuenak da identifikatzea eta saihestea.

Nola ezarriko da programa gure ikastolan?

–Lehenengo Ikastolako irakasle batzuek formazioa jaso dugu, ondoren beste irakasleak eta langile ez-dozeenteak formatu ditugu. Azkeneko fasean gurasoei informazioa helarazi diegu. KiVa eguna ospatuko dugu eta hortik aurrera ikasleekin hitz egingo dugu eta ikasitakoa geletan aplikatuko dugu.

Zure ustez, zer nolako harre- ra egingo diote programari ikasleek, irakasleek eta fami- liek?


–Ziur nago ona izango dela. Ikasleentzat gauza berri bat izango denez, gustura hartuko dute, irakasleak orain arte oso ongi hartu dute eta familek positiboki hartuko dute. –Zangozako Ikastolako DBH 4. mailako ikasleak.

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Nortzuk azaldu zieten KiVa programa Euskal Herriko ikastolei?
 2. KIVA egunean, zein bideo ikusiko dituzte ikasleek?
 3. Ze teknika erabili dute bideoak grabatzeko?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Imanol Vaya (Argia Ikastola).
OINEZ BALEA (2): June Agilera (Argia Ikastola).
OSASUNA (6 sarrera): Ibaialde Ikastolako Oinatz Etxeberria, Nerea Campo eta Xabier Garcia.



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezelako, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudelako eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.